



# Getxo

ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA

*bizi ezazu*

# MED

Musika Eskola Digitala

Zenb./Nº 34  
Urtea/Año 2017  
Otsaila/Febrero

## HILEKO JARDUERAK

### **Otsailaren 1ean. 18:30ean:**

Yolanda Partearroyo irakaslearen piano-ikasleen emanaldia. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

### **Otsailaren 5, 12, 19 eta 26an.**

**19:30ean:** "Andrés Isasi" Musika Eskolako jazz-taldeak eskainitako Jam Session-ak. Areetako "El Comercio" tabernan.

### **Otsailaren 4an. 19:30ean:**

Neguko Bidaia zikloaren 3. kontzertua. Borja Barrueta. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan. Sarrera 5€ (ikasleak 3€).

### **Otsailaren 8an. 19:30ean:**

Teresa Aizpuru irakaslearen biolontxelo-ikasleen emanaldia. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

### **Otsailaren 9an. 19:00etan:**

Arantza Pardo irakaslearen piano-ikasleen emanaldia. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

### **Otsailaren 11an. 19:30ean:**

Neguko Bidaia zikloaren 4. kontzertua. Antonio Oyarzábal. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan. Sarrera 5€ (ikasleak 3€).

### **Otsailaren 18an. 19:30ean:**

Neguko Bidaia zikloaren 5. kontzertua. Gintonic. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan. Sarrera 5€ (ikasleak 3€).

### **Otsailaren 19an. 12:00etan:**

Ernesto Chuliá eta tronpeta-ikastaroaren ikasleen kontzertua. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan. Sarrera dohainik lekuak bete arte.

### **Otsailaren 25ean. 19:30ean:**

Neguko Bidaia zikloaren 6. kontzertua. Blas Fernández. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan. Sarrera 5€ (ikasleak 3€).

## **BA AL ZENEKIEN MUSIKA IKASTEAK HIZTEGIA HOBETZEN DUELA?**

*EEBB-etako Northwestern Unibertsitateko Nina Krausek Nature Reviews Neuroscience aldizkarian argitaratu berri duen berrikuspen baten arabera, musika-tresna bat jotzeko ikasten ari garen bitartean giza-komunikazioaren beste alde batzuk ere hobetzen dituzten neuronen arteko lotura berriak eratzen dira. Horregatik, musika ikasi duten neska-mutilek hiztegi hobea eta irakurtzeko gaitasun handiagoa dute. También explica por qué los músicos son capaces de escuchar mejor una conversación cuando hay ruido de fondo*

## **IX NEGUKO BIDAIA**

IX Neguko Bidaia Zikloan erabat murgilduta gaude. Lehen bi kontzertuak arrakasta handikoak izan dira. Lau falta dira zikloa amaitzeko, eta oso erakargarriak dira hauek ere.

Hirugarren kontzertuan Borja Barrueta bateria-jotzailea eta bere jazz proposamen berritzaileak izango dira protagonistak. Laugarren emanaldian Antonio Dyarzabal piano jotzaileak, Schubert, Janacek, Debussy eta Tchaikovsky maisuen obrez osatutako egitaraua eskainiko digu. Gintonic rock progresiboaren bandak bere talde berriarekin batera eskainiko du bosgarren kontzertua; abesti propioak joko dituzte, bai bigarren diskoarenak bai eta prestatzen ari diren hirugarrenarenak. Jalaldian amalera emateko, Blas Fernández bateria-jotzaileak, seikote baten buru dela, "Urbanetniko" bere azken diskoaren abestiak joko ditu.

Ziklo honetan ohikoa denez, kontzertu bakoitzen ondoren entzuleen eta musikarien arteko solasaldia egongo da.

Informazio gehiago: [www.getxo.eus/musikaskola](http://www.getxo.eus/musikaskola)

## **KONTZERTU DIDAKTIKOAK**

Ikasturtea aurrera doa eta dagoeneko lau dira ikusi ahal izan ditugun kontzertu didaktikoak: bertoko musika-tresnak, Haize-zurezkoak, haize metalezkoak eta jazz. Eta oraindik hari-tresnak, perkusioa eta musika modernoa falta dira. Bai kontzertuetan parte hartzen duten Eskolako irakasleekin, bai eta jarduera horietan laguntzen diguten beste musikari batzuekin ere, txistua, akordeoia, alboka, panderoa, txalaparta, trikitixa, flauta, klarinetea, saxoa, oboea, fagota, tronpa, tronpeta, tronboia, tuba... hurbiletik ikusi ahal izan ditugu, eta ikasi ahal izan dugu bakoitza nolakoa den, duten errepertorioa, beraien ahalbideak bakarrik eta taldean.

Oso saio onak izaten ari dira. Eskerrik asko guztiei parte hartzeagatik.

## **Hileko egutegia**

Otsaila

al	ar	az	og	or	la	ig
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28					

■ Jai-egunak

■ Jarduerak eskolan

■ Jarduerak jai-egunetan